# ON LINE ERRENTAREN PROGRAMARAKO ERABILTZAILEAREN ESKULIBURUA

## Edukia

Autentifikatzea	3
Autentifikazio metodoa: NANa + PINa	5
Autentifikazio metodoa: Ziurtagiri digitala	6
Autentifikazio metodoa: Cl@ve	7
Hasiera:	9
Datu pertsonalak eta familiarrak1	6
Lan esparrua1	6
Nire profila1	7
Datuen kudeaketa	2
Gehitu2	2
Editatu2	2
Ezabatu 2	3
Akatsen eta abisuen kudeaketa	4
Datu ekonomikoak	7
Lan esparrua	7
Aitorpenaren sekzioak	8
Aitorpenaren sekzioak. Datuen kudeaketa	0
Gehitu atalak. Bilatu	3
Gehitu atalak. PFEZ menua	6
Datu fiskalen inprimaketa	2
Iradokizunak4	2
Likidazioa4	4
Aurkeztea 4	7

### Autentifikatzea

Programak honako sarbide pantaila hau erakusten du. Aukeratu daitezke aplikazioaren hizkuntza, zergaldia eta autentifikazio metodoa.

Nafarroako	Online Errenta
Aplikazioaren hizkuntza	
Euskera	¥
🛗 Zergaldia	
2021 - Aitorpena egite	a Oraingo kanpaina
<ul> <li>Aurreko ekitaldiak</li> </ul>	
2020 - Aitorpena egitea	Y
<ul> <li>Autentika ezazu aitortzai</li> <li>Aitortzailearen ziurtagiria</li> <li>Datuen babesaren gaineko o</li> </ul>	ilea J <u>vinarrizko informazioa</u>
Arduraduna	Nafarroako Foru Ogasuna.
Xedea	Nafarroako Foru Komunitatearen eskumeneko zuzenbide publikoko tributu eta sarrerak kudeatzea, ikuskatzea eta horien diru-bilketa
Legitimazioa	egitea. Botere publikoen erabilera
Hartzaileak	Ez zaizkie datuak hirugarrenei lagako, ez bada horretarako baimena eman dutela edo, baimenik eman gabe, araudiak hartarako gaitzen duela.
Eskubideak	Datuen tratamendua mugatzeko, deusestatzeko, zuzentzeko eta haietara iristekoak, eta beste eskubide batzuk, argibide gehigarrian azaltzen den gisan
Argibide gehigarriak	Argibide gehigarria http://hacienda.navarra.es webgunean kontsulta daiteke, datu pertsonalen babeserako atalean.

#### Aplikazioaren hizkuntza

Bi hauen artean aukeratzen uzten du: "Español" eta "Euskera".



#### Ekitaldia

Ekitaldia hautatzeko bi bide bereizten dira:

• Aurtengo kanpaina: lehenetsita dator.



• Lehenagoko kanpaina bat: horretarako gaitu den zerrenda zabalgarrian hautatu beharko da.

۲	Aurreko ekitaldiak	
	~	
20	20 - Aitorpena egitea	
20	19 - Aitorpena egitea	
20	17 - Aitorpena egitea	
20	16 - Aitorpena egitea	informazio

#### Autentifikazio metodoa

Aitortzaileak zein ezkontideak honako hauen bidez autentifikatu daitezke:

- NANa + PINa
- Ziurtagiri digitala
- Cl@ve

Prozesua ordena honetan egiten da:

1 – Aitortzailea autentifikatzen da, "Sartu aitortzailea" botoia sakatuz.



2.- Aitortzailea autentifikatu ondoren, "Ezkontidea edo bikote egonkorreko kidea gehitu" botoia sakatuta identifikatzen da ezkontidea edo bikote egonkorreko kidea (ez badago, ez da egin behar).



3 – Azkenik, sakatu "Hasi" aplikazioan sartzeko.



#### Autentifikazio metodoa: NANa + PINa

Autentifikazio metodo gisa NANa + PINa erabili nahi denean, zergaduna pantaila honetara sartuko da informazioa sartzeko:

	Otras credenciales
Utilice un certificado digital válido o el DNI electrónico para acceder.	DNI + PIN Hacienda Navarra >
Consulte las <u>autoridades de certificación</u> admitidas para las tramitaciones on-line.	clove
Continuar	

NANa + Nafarroako Ogasuneko PINa aukeratu behar da, eta hurrengo orrian informazio hau sartu:

NI y Código de Ao	ceso					
NIF / CIF						Aviso Próximamente esta credencial DNI + PIN va a dejar de estar disponible, salvo para
PIN (cuatro últimos digitos)					x	servicios de la Campaña de la Renta. Le recomendamos utilice Cl@ve o Certificado Digital.
	1	9	4	6	5	
	2	0	3	7	8	
No soy u	n robot	İ	Pri	reC/ vacidad -	APTCHA Términos	
		C	Continu	uar		

#### Autentifikazio metodoa: Ziurtagiri digitala

Ziurtagiriarekin sartzeko, pantaila honetan sartu behar da:

Utilice un certificado digital válido o el DNI electrónico para acceder.	DNI + PIN Hacienda Navarra >
Consulte las <u>autoridades de certificación</u> admitidas para las tramitaciones on-line.	c love
Continuar	

Ziurtagiri digitala gehitzeko, "Jarraitu" botoiari ematean, ziurtagiri digitala hautatzeko leiho bat zabaltzen da. Ziurtagiri hori nabigatzailearen cacheari lotuta geratzen da saioan; beraz, aitortzailea ziurtagiri bidez identifikatu bada eta ezkontidea edo bikote egonkorreko kidea modu berean (ziurtagiriarekin) autentifikatu nahi bada, ezkontidearen edo bikote egonkorreko kidearen autentifikazio prozesua desberdina izango da:

 1 – Programak detektatzen du aitortzailea ziurtagiriarekin autentifikatu dela, eta zergadunari eskatzen dio ezkontidearen edo bikote egonkorreko kidearen sarbide metodoa hauta dezala:

<ul> <li>Hauta ezazu ezkontidea edo bikote egonkorreko kid</li> </ul>	ea autentifikatzeko modua
~	
NANa + PINa, Cl@ve Ziurtagiri Digitala	

2 – Ziurtagiri digitala hautatzen denean, "Autofirma" erabili behar da. Programa hori lortzeko, sartu instalazio eskuliburuan, dagokion esteka sakatuta.

liurtagiri Digitala	*
Ziurtaniri dinital bidezko autentifikazioa	

"Ziurtagiri digital bidezko autentifikazioa" sakatzean, Autofirma leihoa agertuko da, ezkontidearen edo bikote egonkorreko kidearen ziurtagiria aukeratzeko.

#### Autentifikazio metodoa: Cl@ve

Cl@ve-rekin sartzeko, sarbide-metodo hori hautatu behar da pantaila honetan:

Utilice un certificado digital válido o el DNI electrónico para acceder.	DNI + PIN Hacienda Navarra
Consulte las autoridades de certificación	
aumitudas para las tramitaciones on-line.	C I (0 'V e
Continuar	

Hautatu ondoren, estekak Cl@ve-arekin sartzeko orrira eramango du zergaduna, eta honako aukera hauek izango ditu:

EI	ija el método o	le identificación	
Si no transcurren más de 60 minutos	entre autenticaciones y llamadas	a Cl@ve, se le autenticará automáticamente de forma l	transparente.
Cl@ve PIN		****	1. 2
Acceso PIN 24H	Cl@ve permanente	Ciudadanos UE	
Acceder > Para usarlo es necesario registrarse	Acceder > Para usarlo es necesario registrarse	Acceder >	

Aitortzailea Cl@ve bidez autentifikatu bada, ezkontideari edo bikote egonkorreko kideari menu zabalgarri bat agertuko zaio bere sarbide-metodoa aukeratzeko:



Lehenengo aukera hautatuz gero, autentifikazio prozesua aurreko ataletan deskribatutakoaren antzekoa da. Cl@vePIN aukera hautatuz gero, urrats hauek egin behar dira:

1. Egiaztatzea NANa alta emanda dagoen Cl@ve-n:

•	<b>-</b>
Ezkontidearen NANa	
	Egiaztatu zerbitzuan alta emanda zauden

2. Sartzea eskatzen den eta NAN txartelan agertzen den datua, eta eskatu Cl@vePIN kodea:



3. Baieztatzea zergadunak gailu mugikorrean jaso duen PINa:

♣ Ezkontidearen cl@vePINa	_
	Baieztatu PINa

### Hasiera:

Hasierako pantailak erabiltzaileari erakusten dio bere aitorpenaren zirriborro batean sartzen ari dela, eta hura horiz aukeratua agertzen da. Erabiltzaileak aldez aurretik beste zirriborro batzuk balitu sortuta, zerrenda moduan agertuko lirateke, eta zergadunak honako egintza hauek egin ahalko lituzke: zirriborro bat aukeratu, ezabatu eta haren izena aldatu.

Kontuan izan behar da ezen, zirriborro bat baino gehiago badago, aldaketak izan zituen azken hura agertuko dela aukeratuta betiere.

Nafarroako Online Errenta 2021	🔒 Saioa itxi 🕂 Aitorpen berria hasi 🔞 Hizkuntz
Borrador guardado. (PRUEBAS)	
Hasiera	
7 Zure aitorpenaren zirriborro batean sartzen ari zara. Nahi baduzu zirriborr eta bertan Ogasunak dituen zerga-datuak gehituko dira.	o berri bat has dezakezu, aitorpen berri bat hasi sakatuz,
<ul> <li>Zure aitorpenaren zirriborro batean sartzen ari zara. Nahi baduzu zirriborreta bertan Ogasunak dituen zerga-datuak gehituko dira.</li> <li>Zure aitorpenaren zirriborroak</li> </ul>	o berri bat has dezakezu, aitorpen berri bat hasi sakatuz
<ul> <li>i Zure aitorpenaren zirriborro batean sartzen ari zara. Nahi baduzu zirriborreta bertan Ogasunak dituen zerga-datuak gehituko dira.</li> <li>Zure aitorpenaren zirriborroak</li> <li>Borrador 1</li> </ul>	o berri bat has dezakezu, aitorpen berri bat hasi sakatuz Ê Ezabatu 🖋 Aldatu izena

Hauek dira pantaila honetan ikusten diren elementuak:

Nafarroako Online Errenta 2021	Saioa itxi	+	Aitorpen berria hasi	🖄 Hizkuntza	а
Borrador guardado. (Borrador 1)					

Aplikazioaren burualdean, aplikazioaren izenburua eta aukeratutako **kanpainaren urtea** lortzen ditu zergadunak. Gainera, parentesien artean erakusten zaio zirriborro aktiboaren izena eta harekin egin dena ("**zirriborroa gorde da**").

Erabiltzaileak honako hauek egiten ahal ditu dagozkion estekak baliaturik:

- <u>Saioa itxi</u>: Zirriborro bat eta saio aktiboa uzten ditu, eta autentifikazio inprimakira itzultzen da.
- <u>Aitorpen berria hasi</u>: Zirriborro berria hasten du, eta, zergadun autentifikatuen kasuan, Nafarroako Foru Ogasunaren esku dagoen informazio fiskala ageri da bertan. Estekan sakatzean leihoa ateratzen da, zirriborro berriari izen bat emateko.

	Aitorpen berria
?	Aitorpen berria hasi klikatzen baduzu, orain egiten ari zaren zirriborroa utziko duzu eta Ogasunaren esku dauden jatorrizko datu fiskalak dituen berri batekin lanean hasiko zara
Zirrib	orroa 2 ×
	Aitorpen berria Deuseztatu

• <u>Hizkuntza</u>: Laster-leiho bat agertzen da, eta hartan alda daiteke hizkuntza, eta zergadunak nahi duena hauta dezake.

Hizkuntza aukera	tzeko morroia	
Aplikazioaren hizkuntz	a	
Euskera	~	
		Jarraitu

Ikusten den hurrengo elementuak erabiltzaileari pantailako elementuen berri ematen dio, pantailaren egitekoa ezagut dezan. Hau elementu komuna da aplikazio guztian.

Ure aitorpenaren zirriborro batean sartzen ari zara. Nahi baduzu zirriborro berri bat has dezakezu, aitorpen berri bat hasi sakatuz, eta bertan Ogasunak dituen zerga-datuak gehituko dira.

Zirriborroaren informazioan, sortutako profila erakusteaz gain, zergadunei adierazten zaie Ogasunak zer datu txertatu dituen zirriborroan:



Autentifikazio prozesua bakarrik aitortzailearen datuekin egin bada, eta Ogasunak hautematen badu ezkontide edo bikote egonkorreko kide bat zegoela lehen, honako pantaila hau agertuko da, bere datu fiskalak erakutsi gabe:



Erabiltzaileak orduan jarraitzen ahalko du, bakarrik aitortzailearen informazioa dakarren zirriborro batean sartuz, edo autentifikazio pantailara itzultzen ahalko da, "Ezkontidearentzako ziurtagiri bat hautatu" botoia sakatuta.

### Ezkontidearentzako ziurtagiri bat hautatu

Ezkontidea autentifikatu ondoren, zirriborroa jada bien informazioa izanen luke:

Borrador 1	CambiarNombre
Luser00302345X App10030 App20030	
Ekitaldirako sortutako profila	
Aurreko ekitaldietan ondorengo egitate ekonomiko hauek aitortu dituzu:	
Soldata, pentsioa	
Gizarte Segurantzako kotizazioak	
Dibidenduak	
Bankuetako kontuen interesak	
Ekarpenak, mutualitateei, pentsio-planei, asegurudunen planei eta mendekotasun aseguruei	
Errenta salbuetsiak	
Soberakina, norberaren, familiaren eta gizarte segurantzaren gutxienekoagatik, ezkontideak/bikote egonkorreko kideak	(aplikatu beharrekoa (aitorpen bateratua)
Etekinak atzerrian edo seme-alaben mantenurako urtesariak	
Etxebizitzako eta etxebizitza-kontuko desgrabazioaren itzulera	
Kenkariaren oinarriak, ohiko etxebizitzarako	
Aurreko kanpainan aitorpena egin zenuen ezkontide edo bikotekide egonkorrarekin batera	
Ogasunak zerga-ekitaldi honetako datu ekonomikoak jaso ditu egitate ekonomiko hauei buruz: Soldata, pentsioa	
Dibidenduak	
Bankuetako kontuen interesak	
Errenta salbuetsiak	
Ekarpenak, mutualitateei, pentsio-planei, asegurudunen planei eta mendekotasun aseguruei	
Etxebizitzako eta etxebizitza-kontuko desgrabazioaren itzulera	
Fondos de inversión. Harpidetza eskubideak	
Gizarte Segurantzako kotizazioak	
Liser00307283A App10030 App20030	
Ekitaldirako sortutako profila	
Aurreko ekitaldietan ondorengo egitate ekonomiko hauek aitortu dituzu: Soldata, pentsioa	
Gizarte Segurantzako kotizazioak	
Dibidenduak	
Bankuetako kontuen interesak	
Diru-sarrerak, lan irregularren, Gizarte Segurantzaren prestazioen edo pentsio-planen, minusbaliotasunen eta aseguru	en bidezkoak.
Errenta salbuetsiak	
Soberakina, norberaren, familiaren eta gizarte segurantzaren gutxienekoagatik, ezkontideak/bikote egonkorreko kideak	aplikatu beharrekoa (aitorpen bateratua)

Bestalde, autentifikatze bikoitzarekin sartzen bada (aitortzailea eta ezkontidea edo bikote egonkorreko kidea) eta sistemak hautematen badu zirriborroa soilik aitortzaile bakar batendako prestatu zela, honako leiho hauerakusten da zergadunak aukera dezan:



- 1. Segitu orain arteko zirriborroarekin, zeina sortu baita aitortzailearen datu fiskalekin bakarrik. Hautatutako aukera hori bada, laster-leihoa itxiko da eta zergadunak zegoen zirriborroan segituko du.
- 2. Zirriborro berri bat sortu (zirriborro horretan zergadunaren eta haren ezkontidearen edo bikote egonkorreko kidearen informazio fiskalak agertuko dira). Aukera hori hautatzen bada, laster-leiho bat erakutsiko da, eta hartan aukera izanen da zirriborro berriari izen bat jartzeko. Behin sortu ondoren, une horretatik aurrera zirriborro aktiboa izanen da.

Zure aitorpenaren zirriborroak	
	🛱 Easbatu 🗳 Aldatu jaan
Borrador 1	
Zirriborroa 2     User16666666S App11666 App21666	🛍 Ezabatu 🖋 Aldatu izena
Ekitaldirako sortutako profila	
User1999 App11999 App21999 Ekitaldirako sortutako profila	

	Ture ohiko bizilekuaren gaur egungo datuak erakusten dira. Bestela bada, alda itzazu, eta sakatu Gorde eta Irten.	Zuzenak badira, sakatu Utzi eta Irten.	- 79 Hizkuntza
Hasiera	Helbidea		
C Zure ait	Helbide berria	Ez 🗸	əsi sakatuz,
eta bertan C	Bide mota	Kalea 🗸	
Zure aito	Kalea	CALLE	
	ZK.	1	atu izana
E Eorrao	Erne: Helbide fiskala egiazt	atzea	ald izena
Ekitaldir	Atea	kin segitzeko, zure egoitza fiskala	
1	Ataria	- L	aitu
	Blokea	BLO	
	Eskallera	ESC	
	Osagarria	COMPLEMENTANDO EL COMPLEI	
	Herria	PAMPLINA	

Zirriborro batean sartzen den lehen aldian, zergadunari laster-leiho baten bidez eskatzen zaio haren zerga-egoitza baieztatzeko:

Erabiltzaileak "Jarraitu" botoia sakatzen duenean, aitorpena egiteko lau faseak agertzen dira.



Programak informazioa ematen dio erabiltzaileari Ogasunari aitorpen bat aurkezteko bete behar dituen lau zereginei buruz. Honako hauek dira lau zereginak:



Lau bloke horiek titulua dute, baita erabiltzaileak zeregin talde bakoitzean egin behar duenaren inguruko azalpena ere.

Logikoa da aitorpena bete eta aurkezteko proposatzen den ordena: familia-unitatearen osaera adierazi, datu ekonomikoak sartu, emaitza ikusi eta aurkezpena formalizatu.

Zeregin-multzo bakoitza esteka bat da, multzoko zereginak egiteko bidea ematen duena. Hurrengo talde batera pasatzen utziko du bakarrik aurreko zereginak zuzentzat jotzen badira.



Erakusten dugun botoia da lehen zeregin-multzora hurbiltzeko aukera ematen digun beste elementu bat. Filiazioaren esparrura joaten da. Laguntzaile bateko hurrengoa/aurrekoa botoien antzera jokatzen du. Hau elementu komuna da aplikazio guztian.



### Datu pertsonalak eta familiarrak

#### Lan esparrua

Aplikazioak ibilbide bat erakusten du, erabiltzailea dagoen zeregin-multzoan kokatzeko. Fase bakoitzean barna mugitzeko modu bat ere bada: zenbakiz markatutako mugarri bakoitza sakatzen ahal den esteka da. Hau elementu komuna da aplikazio guztian.



Ikusten den hurrengo elementuak erabiltzaileari pantailako elementuen berri ematen dio, pantailaren egitekoa ezagut dezan. Hau elementu komuna da aplikazio guztian.

#### Filiazioaren datuak

Mesedez begiratu ea zure familia-unitatearen datuak zuzenak diren eta, akatsik badago, zuzendu. Gogoan izan kide berriak erants ditzakezula zure familia-unitatea aldatu bada.

Multzo honek erakusten ditu aitorpenean eginkizun zehatz bat duten pertsona guztiak: aitortzailea, ezkontidea edo bikote egonkorreko kidea, murriztapenak gaitzen dituzten pertsonak, etab.

Hasiera batean, programak berak sartutakoak agertzen dira bertan, Ogasunak informazio hori duelako. Dena den, pertsona horien gainean egiten diren aldaketak erakusten ditu: gehitu direnak, ezabatu direnak, aldatu direnak.

Pertsona bakoitzaren kutxa sakatzen ahal den elementua da eta horrek aukera ematen du kide bakoitzaren informazio zehatza ikusteko.

Familia-unitatea	
NOMBREDECLARANTE APED1 APED2 (Aitortzailea)	
mutil dei1 dei2 (Ondorengoak, seme-alabak edo ezgaituak)	Ezabatu 8 Nire profila

Pertsonen kutxa horietako bakoitzean, honako esteka hauek daude:



**Ezabatu**: Honen bidez, aitortzailea ez den beste edozein elementu ken daiteke familia unitatetik.

<u>Nire profila</u>: Hau ageri da programatik zuzenean gehitu diren ahaideetan, eta beste batzuetan, Ogasunak haiei buruz aldez aurreko informaziorik ez duenean. Erakusten dugun botoi-barra da zeregin-multzoen artean mugitzeko aukera ematen duen beste elementu bat. Hasierako pantailara itzultzen da edo (akats larririk ez badago) datu ekonomikoen kudeaketara pasatzen da. Laguntzaile bateko hurrengoa/aurrekoa botoien antzera jokatzen du. Hau elementu komuna da aplikazio guztian.

K Hasiera 🕹 Erantsi kide bat familiari Datu eko	omikoak 🗲
---	-----------

#### Nire profila

"Nire profila" aukeratzen badugu, programak honako pantaila hau erakusten digu, zeinak zergadunaren egoera pertsonalaren zenbait datu adierazteko aukera ematen baitu, aitorpena osatzeko behar izaten ahal diren atalak emateko:

- Honako hau naiz: ... Zer den jakinda, bere ezaugarriei dagozkien atal egokiak ematen zaizkio zergadunari.
- Urte horretan hau gehitu nahi dut: ... Urte horretan egindako jarduera ekonomikoakzein diren jakinda, horiei dagozkien atalak ematen dira.
- Kendu... Jakinda zergadunaren ustez zer kenkari aplikatu behar zaizkion, kenkari horiei dagozkien atalak ematen dira.

일 Honako hau naiz:	Urte horretan	1 Kendu
ER ZAREN adierazten badiguzu, laguntzen hal dizugu zure altorpenean sartzen segur aski artu beharrekoak diren datuak.	Urtean egindako jarduera ekonomiko jakin batzuk aipatzen badizkiguzu, zure aitorpena betetzen laguntzen ahal dizugu.	Baldin badakizu kenkaria izan dezakezula ukitzen zaituen egitate ekonomiko batengatik zure aitorpena betetzen laguntzen ahal dizug egitate ekonomiko haiei dagokienez.

Hautapenaren mekanika honako hau da. "Honako hau naiz: ..." sakatuz

일 Honako hau naiz:
ZER ZAREN adierazten badiguzu, laguntzen ahal dizugu zure aitorpenean sartzen segur aski sartu beharrekoak diren datuak.
🗹 Aukeratu

Aukeren edo galderen zerrendan jartzen da. Bertan ... aitortzailearen profilarekin bat datozen galderak aukeratzen ahal dira.

울 Honako hau naiz:
Sindikatu edo alderdi bateko kidea naiz.
Enplegatua, soldata, jornala, lansaria jasotzen duena
Pentsioduna
Lanbide elkargo bateko kidea naiz.
Lanbide liberala, artista, kirolaria
Enpresaria honako jardueretan: erauzketa, fabrikazioa, merkataritza, zerbitzuak ematea, artisautza, eraikuntza, meatzaritza
Nekazaria, abeltzaintza, basozaina edo arrantzalea.
Kirolaria eta ekarpenak egin dizkiot kirolari profesionalen mutualitateari.
Inbertsio kolektiboko erakundeetako kidea.

Aukeratutako ezaugarriak erregistratuta gelditzen dira, gero berrikusi ahal izateko, zerrenda gisa, "Honako hau naiz..." kutxan

2 Hona	ako hau naiz:	🛗 Urte hor
Sindikatu edo	) alderdi bateko kidea naiz.	Urtean egindako j batzuk aipatzen b
Enplegatua, soldata, jornala, lansaria jasotzen duena		betetzen laguntze
	☑ Aukeratu	
8 Hona	ako hau naiz:	
✓ Sind	likatu edo alderdi bateko kidea naiz.	
🗹 Enp	legatua, soldata, jornala, lansaria ja	asotzen duena
Pen	tsioduna	
	hide elkaroo hateko kidea naiz	

Modu berean aukeratzen ahal dugu beste bi kategorietan: Urte horretan hau gehitu nahi dutela Kendu.



#### Zerrenda luzea bada, lehendabiziko aukerak agertzen dira

∰ Urte horretan	
Kapitalaren etekin negatiboak lortu ditut.	
Nire ondarea aldatu da nire ohiko etxebizitza salduta.	
Ekarpenak izan ditut nire minusbaliotasunagatik	
Jaso ditut gizarte-aurreikuspeneko sistemen aldeko kontribuzioak	
Ekarpenak izan ditut nire minusbaliotasunagatik	
Hainbat abantaila izan ditut enplegatua izateagatik: etxebizitza, ibilgailua	
Gizarte Segurantzan kotizatu dut besteren konturako langile gisara.	
Higiezinak azpierrentan izan ditut.	
Irudi eskubideak laga ditut.	
Interesak lortu ditut partaide naizen entitateei kapitala lagatzearen ondorioz.	
+ Erakutsi gehiago	

"Erakutsi gehiago" botoia sakatuta, zerrenda osoa erakusten du.

+ Erakutsi gehiago

#### Honako hau da emaitza...

∰ Urte horretan	
Kapitalaren etekin negatiboak lortu ditut.	
Nire ondarea aldatu da nire ohiko etxebizitza salduta.	
Ekarpenak izan ditut nire minusbaliotasunagatik	
Jaso ditut gizarte-aurreikuspeneko sistemen aldeko kontribuzioak	
Ekarpenak izan ditut nire minusbaliotasunagatik	
Hainbat abantaila izan ditut enplegatua izateagatik: etxebizitza, ibilgailua	
Gizarte Segurantzan kotizatu dut besteren konturako langile gisara.	
Higiezinak azpierrentan izan ditut.	
Irudi eskubideak laga difut.	
Interesak lortu ditut partaide naizen entitateei kapitala lagatzearen ondorioz.	
Etekinak lortu ditut jabetza intelektual, laguntza tekniko edo jabetza industrialagatik	
Gastuak izan ditut, laguntza teknikoagatik, edo kapitala, negozioak edo meatzeak errentan edo azpierrentan izateagatik.	
Uste dut badudala eskubidea murrizketak izateko kapital higigarrian.	
Dibidenduak edo etekinak lortu ditut akzioei lotuak.	
Interesak lortu ditut banku-kontuetakoak edo kapitalaren beste lagapen batzuetakoak.	
Eskuratu ditut hobaridun betebeharren interesak.	
Etekinak lortu ditut, aseguru kontratuena edo aurrezpen sistematikoko planena.	
Altxorraren letren interesak lortu ditut.	
Etekinak lortu ditut EEko beste estatu batzuetan.	
Etekinak lortu ditut ondasun higigarrien eskubideengatik.	

•••

Gastuak izan ditut kapital higigarriaren administrazioari eta gordailuari dagozkienak.
Alokatua izan dut nire jabetzako etxebizitza bat.
Alokatua izan dut nire jabetzako lokal bat (edo antzekoa).
Etekinak izan ditut erabiltze eta lupertzeari dagozkionak (baita familiakoak ere).
Gizarte Segurantzan kotizatu dut zaintzaileengatik.
Ekarpenak egin dizkiet desgaitasuna dutenen aldeko gizarte aurreikuspeneko sistemei, edo ondare babestuei
Kidetze kuotak edo ekarpenak egin dizkiet alderdi politikoei.
Ordaindu ditut seme-alaben mantenurako urtesariak.
Ordaindu ditut konpentsazioko pentsioak.
Ekarpenak egin dizkiet gizarte-aurreikuspeneko sistemei (mutualitateak, pentsio planak eta plan aseguratuak, mendekotasuneko aseguruak)
Errentak lortu ditut Espainian edo Europar Batasunean egoiliar ez den entitate baten eskutik.
Errentak lortu ditut irudi-eskubideak lagata.
Nire ondarea aldatu da enpresa edo lanbideko jarduerei abxikitako ondasunak salduta
Nire ondarea aldatu da beste higiezin batzuk salduta; edo landalurrak, hirilurrak edo urbanizagarriak; akzioak, aktibo ez-materialak.
Jaso ditut ohiko etxebizitzarako diru-laguntzak.
Nire ondarea aldatu da inbertsio-funtsak edo harpidetza eskubideak salduta.
Nire ondarea aldatu da sariengatik, kalte-ordainengatik, zorraren barkamenagatik, jokoko irabazlengatik

Programak modu berean jokatzen du kenkarien kasuan.



l Kendu	
Murriztapena, aldizkakoak ez diren edo irregularrak diren lanetan diru-sarrerak eskuratzeagatik	
Murriztapena, Gizarte Segurantzako prestazioengatik edo pentsio planengatik	
Murriztapena, desgaitasuneko prestazioengatik	
Murriztapena, heriotza-aseguruko edo baliaezintasuneko prestazioengatik.	
Aurrerakinak, erretiro-pentsioengatik eta alargun-pentsioengatik.	
Ohiko etxebizitzaren errentamenduagatik.	
Enpresari eta profesionalendako enplegua sortzeagatik.	
Ceutan eta Melillan lortutako errentak eta beste kenkari batzuk.	
Dohaintzengatik	
Kenkaria, nazioarteko zergapetze bikoitzagatik.	
+ Erakutsi gehiago	

Beheko aldean bi botoi ditugu, zergadunaren datu ekonomikoak deuseztatzeko edo aukeratuak eransteko.

Deuseztatu

Erantsi aukeratuak

### Datuen kudeaketa

#### Gehitu

Beheko aldeko botoi-barran, botoi bat dago aitorpenari pertsona bat gehiago erantsi ahal izateko. Aukeratu behar da zein den pertsona horren zeregina aitorpenean. Pertsona mota zehatz batek duen gehienekoa bete bada, hautatzeko aukeren artean ez du mota hori erakutsiko.



#### **Editatu**

Pertsonaren datuak editatzeko, datu estandarren zerrenda bat agertzen da horiek informatzeko. Emandako adibidean ez da hasiera batean daturik erakusten berria delako. Dena den, jada editatu bada edo Ogasunak datuak sartu baditu, horiek agertuko dira nahi badugu aldatu ahal izateko.

Familia-unitateko kidea editatu Ondorengoak, seme-alabak edo ezgaituak	
Ezindua	
* 1. deitura	
2. deitura	
* Izena	
I.F.Z	
* Jaiotze data	uuuu/hh/ee
* Esleipena	V
* Sexua	V
Heriotze data	uuuu/hh/ee
* Desgaitua	V
* Ahaidetasuna	V
Ikaslea	
	Deuseztatu eta atera Gorde eta atera

Edizio-pantailek ekintza-barra bat dute, deuseztatu edo gorde ahal izateko. Lehendabiziko kasuan, ez dira datuak gordetzen eta, bigarrenean, bai.

orde eta atera

#### Ezabatu

Pertsonen zerrendan, horietako bat ezabatzen ahal da ikono hau sakatuz



Berrespena eskatzen du:

Berretsi	
?	Ezabatu nahi duzu?
	Onartu Deuseztatu

Hau elementu komuna da aplikazio guztian.

### Akatsen eta abisuen kudeaketa

Izan daitezkeen akatsak edo abisuak egiaztatuko dira bakarrik inprimaki batean sartu beharreko datuak gordetzeko eskatu denean.

Espero ez den gorabeheraren bat atzemanez gero, mezu honen bidez adieraziko da.

	Akatsak inprimakian
?	Inprimakiak akatsak ditu: zuzendu nahi al dituzu aurrera egin baino lehen?
	Zuzendu Jarraitu

Bi aukera daude:

- <u>Zuzendu</u>: inprimakian segitzen du, atzeman diren akatsak edo abisuak berrikusteko.
- <u>Jarraitu</u>: gordetzen du eta ateratzen da, baina atal akastun hori markatzen du.

Edizioko inprimakian segitzen baduzu, edo ondoren hartan sartzen bazara, programak markatuko ditu egiaztapenak aktibatu dituzten datuak.

Ondotik <u>akats larria</u> (kolore gorriz) ikus daiteke. Halako akatsak zuzendu egin behar dira, beste zeregin talde batera joan ahal izateko.

* Izena	
	Eremua bete behar duzu

Ondotik abisu bat ikus daiteke. Erabiltzaileari ohartarazten dio egoera arraro bat dagoela, baina hori zuzena izan daiteke. Bidea ematen du aitorpeneko zereginen beste talde batean aurrera egiteko eta, azkenean, aitorpena aurkezteko.



Zergadunak edozein abisu estali dezake, horren testuaren gainean klik eginda.

Inprimaki batek abisu estaliak dituenean, erabiltzaileak berriz ere erakuts ditzake dagokion esteka sakatuta:

0	Gaztigu ezkutuak daude, klik egin esteka honetan horiek agerrarazteko.

Zerrendan ikus daitezke atzemandako akatsak edo abisuak (kasu honetan familiako kideei buruzkoak). Modu horretan, jakin daiteke zein pertsonak edo atalek dituen berrikusi beharreko arazoak eta zein den arazo horien garrantzia.

Abisu-kolorearekin markatutako kutxa.



Edizioan sartu gabe, posible da gorabeheren zerrenda berrikustea esteka hauen bidez (Erakutsi gorabeherak <-> Ezkutatu gorabeherak).



Mezu honek interpretatzen du atzemandakoaren larritasuna (atzemandako mailarik larriena erakusten du).

1 Abisu batzuk detektatu dira horiz markatutako ahaideetan. Aurrera egin baino lehen, mesedez, ikusi abisuak.

Erabiltzaileak erabaki badu abisuak dagokien inprimakian ezkutatzea, hauek ez dira pertsonen zerrendan erakutsiko.

NOMBREDECLARANTE APED1 APED2 (Aitortzailea)

Kolore horiko ertzak erakutsiko du erabiltzaileak ezkutatu dituen abisuak dituela pertsonak.

Akatsen saileko gorabeheren zerrenda, erakutsi edo ezkutatu daitekeena:





#### Mezu honek gorabehera larriak interpretatzen ditu

🛕 Ikusi da familia-unitateko kide batzuk oker daudela eta gorriz markatu dira. Aurrera egin baino lehen, mesedez, zuzendu agertu diren arazoak.

Erabiltzailea ezin da igaro familia datuen multzotik datu ekonomikoen multzora, gorabehera larri guztiak ez baditu zuzendu. Hurrengo mezuak horren berri ematen du.

Akatsak filiazioaren datuetan	
•	Ikusi da zure familia-unitatearen datuetan akatsak daudela; mesedez, zuzen itzazu aurrera egin baino lehen.
	Onartu

Datuen kalitatea egiaztatzen duten elementu hauek komunak dira aitorpen guztian.

### Datu ekonomikoak

### Lan esparrua

Aplikazioak ibilbide bat erakusten du, erabiltzailea dagoen zeregin-multzoan kokatzeko: kasu honetan, datu ekonomikoen kudeaketa.

Nafarroako Online Erro	enta 2021	+ Aitorpe	n berria hasi 🔍 Bilatu 🕅 Hizkuntz	a
Borrador guardado. (PRUEBAS) Datu pertsonalak eta familiarrak	2 Datu ekonomikoak	<ul> <li>Zirriborroak ikusi</li> <li>Aitorpenaren emaitza</li> </ul>	<ul> <li>Saioa itxi</li> <li>Inprimatu zirriborro</li> <li>Aitorpena aurkeztea</li> </ul>	a

Elementu bisual honek erabiltzaileari pantailako elementuen berri ematen dio, pantailaren egitekoa ezagut dezan.

Datu ekonomikoak	Zerga-ordainketa mota	Bategina	🕒 Datu fiskalak
7 Zuzendu, aldatu eta erantsi datu ekonomiko berria	ık. Azaldu zein diren morroi	aren bidezko modua e	ta modu normalaren arteko
aldeak, eta agiriaren bukaeran kontuan hartu beharreko b	hainbat iradokizun eta akats	azalduko zaizkiola.	

"Zerga-ordainketa mota" aukeran, aitorpen-modalitatea hauta daiteke: bategina edo bereizia. Bistaratze-aukera hori aitorpenean zehar ere agertzen da, banakako pantaila jakin batzuetan, hala nola kenkarien pantailetan eta beste batzuetan.

Erakusten dugun botoi-barra da zeregin-multzoen artean mugitzeko aukera ematen duen beste elementu bat. Filiazioaren pantailara itzultzen da edo aitorpenaren emaitzara igarotzen.

Laguntzaile bateko hurrengoa/aurrekoa botoien antzera jokatzen du.



### Aitorpenaren sekzioak

